
**ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNITATEKO
KOORDINAZIO-PROTOKOLOA
GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEN PREBENTZIOA
ETA ARRETA HOBETZEKO**



	AURKIBIDEA	
1	AURKEZPENA	3
2	GENERO-INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA	4
3	GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO JARDUKETA-EREMUA	6
4	ADIERAZI DUTE	7
5	ERABAKI DUTE	8
6	DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA	9
7	JARDUERA-PROGRAMA	10
8	TRESNAK	19
9	ERASKINA	29
10	PROTOKOLOAREN SINADURA	34

1. AURKEZPENA

Genero Indarkeria arazo politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa, soziala eta kulturala da, eta errotik ateratzeko aldaketa handiak egin behar dira pertsonak sozializatzeko moduetan, honako eremu ezberdin hauetan ekintzak eta egiturazko erreformak eginez: hezkuntza, osasuna, arlo juridikoa, polizia, lana, e.a. Eta, jakina, gizarte osoaren konpromisoa behar da horretarako.

Gure gizarteak badu legegintzako esparrua gai horretan, eta hori aurrerapen handia da arazoari heltzeko. EAEn, "Etxean tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobe emateko Erakunde arteko Hitzarmena sinatu zen 2001ean, eta, 2009an, berretsi zen II. Hitzarmenarekin. Hitzarmenak ondorengo erakundeek sinatu zituzten: Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltza, Foru Aldundiak, Eudel/Euskadiko Udalen Elkarte, Abokatutzaren Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua. Era horretan, biktimei laguntzeko eta jardueraren eremu ezberdinetan jarduteko jarraibideak ezarri ziren tartean aurkitzen diren Erakunde guztientzat.

Araudi-esparru gisa, ondorengo legeak aipatu behar dira: uztailaren 31ko 27/2003 Legea, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua arautu duena; abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa emateko Neurriak buruzkoa; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako, Estatu mailan; eta otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan. Hain zuzen ere, azken horretako 62. artikuluan, gure Erkidegoko Administrazioari eskatzen zaio erakunde arteko lankidetzaren hitzarmenak bultzatzeko, emakumeen tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean modu koordinatuan eta eraginkorrean jardutea errazte aldera eta biktimei arreta osoa eta kalitatezkoa bermatzearren.

Hori guztia dela-eta, **Arratiako Mankomunitateak**, indarkeria sexistaren kasuen prebentzioa, esku-hartzea eta segimendua hobetzeko beharraz ohartuta, alde aurretiko **Diagnostikoan** oinarrituz, **Jarduera integraleko protokolo** hau egin du, lanbide arteko adostasunetik eta adostasun politikotik, arazo hori jorrazteko jarduera-estrategia egokiak abian jartzeko asmoarekin.

Agiria, beraz, tresna baliagarria izango da genero-indarkeriaren biktimak prebenitzeko nahiz logikoki artatzeko udalerrian esku hartzen duten zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa erraztearen, laguntzaren hasieratik amaierara bitarte, babesteko instrumentu guztiak abian jarrita eta dauden baliabideekin.

2. GENERO- INDARKERIAREN KONTZETUALIZAZIOA

Hauxe da NBEk emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztearen gaineko 1993ko dokumentuan indarkeriari buruz ezarritako definizioa eta Emakumeari buruz Beijing-en 1995eko Munduko IV. Konferentzian erabilitakoa, baita Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 50. artikuluan agerrarazi dena ere:

“Emakumeen kontrako indarkeria sexuaren bidezko indarkeriako beste edozein ekintza gisa ulertu behar da, emakumeei kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa edo sufrimendua eragin diezaiokeena, ekintza horiek egiteko mehatxuak, hertsapena edo askatasuna arbitrarioki kentzea barne, horiek guztiak bizitza pribatuan eta publikoan gertatzen direnean”.

Protokolo honen izaera integrala da; hau da, PREBENTZIOZKOA ETA LAGUNTZAZKOA. Beraz, indarkeriaren kontzeptualizazioan ondorengoak izango dira kontuan:

- Emakumeen kontrako indarkeria EGITURAZKOA da, generoaren gizarte-kultura arloko balioetan eta arauetan oinarritzen baita. Hori dela-eta, gizartea saiatzeko indarkeria horri garrantzia kentzen eta hura normalizatu eta naturalizatzen. PATRIARKATUA deitu ohi zaio.
- Munduaren kontzeptualizazio maskulinoari emandako pribilegioa Frantziako Pierre Bourdieu soziologoak menderatze maskulinoa edo INDARKERIA SINBOLIKOA deitzen duenaren oinarria eta funtsa da. Indarkeria oso eraginkorra da, biktimentzat ikusezina, hautemateko eta ezagutzeko eskema eta instrumentu sinbolikoak onartzen dituzte, ezarri zaien menderatze-harremanaren arabera kodetuak; era horretan, haien ezagutza-ekintzak, ezinbestean, mendetasun-ekintzak dira. Esate baterako, maitasun erromantikoaren mitoak,... Hala, honako lekukotasun hauek biltzen dira oraindik ere epaitegietan: *“Nire senarrak neurrian jotzen nau baina oraingoan pasatu egin da”.*
- Genero-indarkeria dela-eta, Protokolo honetan sexu-erasoak kontuan izango dira.

Hori guztia dela-eta, Protokolo Mahaiak, batetik, genero-indarkeriaren aurkako borrokan esku hartzen duten agenteen koordinazio-lanak egingo ditu, eta, bestetik, indarkeria-mota horren biktimei behar bezala erantzuteko koordinazio-lanak.

A) Tratu txar motak:

- **Fisikoa:** errazen ikusten den indarkeria-modua da. Pertsona bati egindako edozein eraso fisiko izan daiteke: zauriak, kolpeak, bultzadak, e.a. Ondorio larriak izan ditzake, eta heriotza ere eragin dezake.
- **Afektibo-psikologikoa:** hitzezko indarkeria, sarritan, iseka gisa agertzen da, eta "zauri" sakonak eragin ditzake, auto-estimua jaitsarazten duelako. Menderatze-modu horrek ez du markarik uzten, ikusten den markarik! Maizegi uste da indarkeria-modu honek ez duela kalterik egiten. Baina inor ezin daiteke garatu irainak, mehatxuak, laidoak eta mespretxuak etengabe jasotzen baditu eta etengabe kontrolatuta badago.
- **Sexuala:** emakumeak nahi ez duen edozein sexu-kontaktu, indarrez egindakoa edo behartua. Bikotearen barruko bortxaketa, sexualki iraintzea, objektu sexual moduan tratatzea barne.
- **Ekonomikoa:** informazioa eskuratzea edo dirua erabiltzea galaraztea. Laneko merkatutik, etxeko dirua kontrolatuzetik eta bere oinordekotzatik aparte uztea. Emakumea baliabide ekonomikorik gabe uztea haren autonomia kontrolatzeko modua da.
- **Soziala:** tratu txarrak jasaten dituen emakumea isolatzea. Harreman sozialetatik aparte uzten da, familiarik edo lagunengandik urrundu edota haien aurrean laidotu.

B) Emakumeen aurkako indarkeria bizitzaren zikloan

ETAPA	INDARKERIA-MOTA
Jaio aurrekoa	Sexuaren bidezko abortu selektiboa; kolpeak haurdunaldian.
Hasierako haurtzaroa	Neskatilen infantizidioa; abusu fisikoa eta emozionala; urtebetetik beherako neskatxen elikadura eta tratamendu mediko bereizia izatea, abusu sexuala, bortxaketa.
Haurtzaroa	Neskatilak ezkonaraztea; genitalak moztea; familiakoen eta kanpokoen abusu sexuala; elikadura eta tratamendu mediko bereizia; haurren prostituzioa.
Nerabezaroa	Ikaskideen eta mutil-lagunen indarkeria; arrazoi ekonomikoek eragindako sexu-harremanak; abusu sexuala lanean; indarkeria; sexu-jazarpena; behartutako prostituzioa.
Helduaroa	Gizonezko bikotekideak emakumea abusatzea; ezkontidearen bortxaketa; ezkontidearen dotearekin lotutako abusuak eta hilketak; ezkontidea hiltzea; abusu psikologikoa; laneko sexu-jazarpena; sexu-jazarpena; indarkeria; emakume ezinduen abusuak; bortxaketa "gerrako arma" gisa.
Zahartzaroa	Emakume alargunak eta adinekoak abusatzea; bortxaketa; tratu txarrak bikotean.

Iturria: Heise, Lori, Pitanguy, Germain, Adrienne (1994).

3. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO JARDUKETA-EREMU ESPEZIFIKOA

EAEn instituzio mailan jasotako azken txostenen arabera, gehien salatutako genero-indarkeria bikoteak, bikote ohiak egindakoa da; beraz, indarkeria-mota hori entzuten da batez ere komunikabideetan, eta, era horretan, emakumeen aurkako indarkeria-mota bat homogeneousatzea bultzatzen da. Hala eta guztiz ere, ikusezinezkoak diren beste genero-indarkeria batzuk badira, agiri honetan dagoeneko adierazi ditugunak, boterearen harreman asimetrikoak iraunarazten dituztenak; esate baterako, mikroindarkeriak. Horrela, **Arreta Osoko Protokolo** honetan horiek ere kontuan hartu dira.

Protokoloa diseinatu da **Arratiako Mankomunitatea** osatzen duen udalerrri bakoitzean gertatutako tratu txar sexista mota guztiak ikustarazten laguntzeko ere euskarria izan dadin, gertatutako eremua edozein delarik ere. Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako tratu txarra ez baita kontu pribatua.

Ondorioz, **JARDUKETA OSOKO PROTOKOLOAREN** ikuspegitik, neskaiten, gazteen eta emakumeen aurka gehienbat egindako 3 indarkeria-motatatik batzuk aurkeztuko ditugu:

- Indarkeria familian eta maitasunezko harremanetan.
- Sexu-askatasunaren aurkako delituak.
- Mikroindarkeriak

1. INDARKERIA FAMILIAN ETA MAITASUNEZKO HARREMANETAN

Indarkeria-mota hau bikotearen edo bikote ohiaren harreman afektiboetan gertatzen da, elkarrekin bizi izanda edo ez. Hainbat indarkeria-adierazpen bereiz daitezke: fisikoa, psikologikoa, sexuala, soziala eta ekonomikoa. Halaber, harreman afektibo horretako seme-alabak indarkeria-mota horren biktimak izaten dira, eta Protokolo honetan analisi hori kontuan izan da. Era berean, kategoria honetan sartu da familiako kide batek ama, arrebarekiko,... gauzatutako indarkeria.

2. SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK (Sexu-erasoak)

GI Protokolo honetan jorratuko den delitua aintzat hartu da; hots, gizonak neskaiten, nesken eta emakumeen aurka (famiatik eta/edo harreman afektiboetatik kanpo) egindako indarkeria sexuala adierazten duten guztiak.

- **Sexu-erasoa (ZK-ko 178. artikulutik 180. artikulura):** baimendu gabeko sexu-harremana da, indarkeriaren, larderiaren bidez eta inguruabar astungarriekin lortzen dena. Kasurik paradigmaticoena modu ezberdinetako bortxaketa da.

3. MIKROINDARKERIAK

Generoarekin lotutako rolak eta estereotipoak bultzatzen dituzten jarrera eta portaeren praktikak dira, garrantzia gutxiagoko indarkeriak ere deitzen direnak. Emakumeek, emakumeak soilik izateagatik, esperimintatzen duten desberdintasun-egoeraren iraupena bilatzen dute; esate baterako, etxean erantzukidetasuna ez izatea, hizkuntzaren erabilera sexista,...

Era horretan, garrantzitsua da Arratiako Mankomunitateko hezkuntza eta gizarte eragile ezberdinek egiten duten lana: GHET, GZ mankomunatuak eta mankomunitatea osatzen duten udalerrietako ikastetxe ezberdinak. Izan ere, balioetan eta bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntza bultzatzeko konpromisoarekin, askatasuna, duintasuna, solidaritatea,... bezalako funtsezko printzipioez gain, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA barneratzea errazten du.

4. ONDORENGOA ADIERAZI DUTE

- Emakumeen aurka era batera edo bestera gauzatzen den indarkeria emakumeen duintasun eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako eraso larria da; ondorioz, giza eskubideen bortxaketa gorria bezala jorratu behar da eta ez osasun publikoaren arazoa balitz bezala.
- Indarkeria horrekin emakumeek beren bizitzako edozein ziklotan jasaten duten desberdintasunaren egiturazko egoeran hondoratzen dira; alegia, gizartean eta familian eginkizunak eta erantzukizunak sexuaren arabera banatzeko modu tradizionalan oinarritzen da, eta, modu horretan, emakumeak gizonen mende geratzen dira.
- Erakunde mailan, salatu ohi den genero-indarkeria bakarrik ezagutzen da; hau da, bikoteak edo bikote ohiak familia barruan eragindako genero-indarkeria. Hori dela-eta, ez dira batere ezagutzen familiaren barruko genero-indarkeriaren beste adierazpen batzuk; hala nola, seme-alabek amarekin indarkeriaz jokatzeko eta askatasun sexualaren aurkako delituak: sexu-erasoak, sexu-esplotaziorako salerosketa,...
- Neskatxa, neska eta emakume batzuk oraindik ahulago egiten dituzten egoera batzuetan aurkitzen dira. Egoera horien artean honako hauek aipatu behar ditugu: dibertsitate funtzionala, gorputz aniztasuna, migrazioa, sexu-orientazioa, sexu-aukera, etnia edo kultura batekoa izatea, e.a. Horrek "diskriminazio bikoitza, hirukoitza, ... eragiten du".
- Generoaren desberdintasun-hesiak murriztearekin ez da emakumeen aurkako indarkeria nahitaez murrizten. Indarkeria sexistaren adierazpen batzuk gerta daitezke sexuen arteko berdintasun-kuota handiagoen aurrean gizonen erreakzioaren ondorioz.
- Adina, izaera edo arraza kontuan izan gabe, egunerokoak dira eta zabaldua daude "generoaren mikroindarkerien" hainbat eta hainbat adierazpen; hots, zaintzeko lana ez onartzea, lan-ezegonkortasuna lanbide feminizatuetan, erantzukidetasuna ez onartzea, ustezko babesak, e.a. Beraz, horiek guztiek emakumeen autonomiari kalte egiten diote.
- Giren biktimak diren emakumeen seme-alabak ere arazo horren biktimak dira, eta, beraz, arazoa oso-osorik jorratu behar da.

5. ETA ONDORENGOA ERABAKI DUTE

- **1. PUNTUA:** Protokolo hau sinatzea erakunde ezberdinek burutzen dituzten jarduerak koordinatze aldera, gure herrialdean indarkeria sexistaren bi adierazpen ohikoenen biktimak diren pertsonak artatzeko: genero-indarkeriaren delitua eta sexu-erasoak. Protokolo hau aplikatuko zaie indarkeria horren biktimak izan eta laguntza eskatu eta Arratiako Mankomunitateko lurralde-eremuan bizi edo bizitzen jarriko direnei.
- **2. PUNTUA:** GI Mahaia izendatzea Protokoloa oro har koordinatzeko. Mahaia politika, hezkuntza, gizarte,... munduko eragile ezberdinek osatuko dute, eta mahaiaren erantzukizuna izango da Protokoloaren segimendua egitea eta protokoloa gauzatzeko lan egitea.
- **3. PUNTUA:** Erreferentziatzeko pertsona bat izendatzea kudeaketa teknikorako eta beste bat kudeaketa administratiborako.
- **4. PUNTUA:** Protokoloaren edukiak hedatzea Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako langile teknikoaren artean; hots, erakunde sinatzaile bakoitza osatzen dutenen edo horren mende aurkitzen direnen artean eta indarkeria sexistaren biktimen prebentzioan nahiz artapenean lan egiten dutenen artean.
- **5. PUNTUA:** Genero-indarkeria hobeto ulertzen laguntzen duten prestakuntza-planak bultzatzea eta, bereziki, Protokolo honetako koordinazio-jarraibideak kontuan izatea, Prestakuntza sinatu duen erakunde bakoitza osatzen duten edo horien mende dauden profesionalentzat izango da. Halaber, indarkeria-mota horren prebentzioa sustatzen duten jarduerak bultzatzea.
- **6. PUNTUA:** Indarkeriaren biktimak artatzea, haien jabeakuntza eta bizitzeko modu normalizatua errazten saiatuaz. Era horretan, indarkeria jasaten duten emakumeen bigarren biktimizazioa ahalik eta gehien saihestuko da eta profesional edo instituzio ezberdinen esku-hartzearekin izan daitezkeen eragozpenak guztiz murriztu.
- **7. PUNTUA:** Laguntza eskatutako emakume guztiak tratatzeko berdintasun-printzipioa bermatzea; aldi berean, baliabideak haien berezitasunetara egokitzea: migratutako emakumeak, aniztasun funtzionalekoak, adinean aurreratuak,...
- **8. PUNTUA:** Protokoloan jaso gabe izan eta sinatzen den unetik berrikusi arte hiru urteko denboraldian agertutako alderdi guztiak betetzeko behar diren prozedurak, tresnak eta baliabideak bermatzea. Emakumeen elkarrekin animatzea BFAko **gizarte laguntzarako eragileen programan** parte-hartzen esaterako.
- **9. PUNTUA:** Mankomunitatearen esparruan eragina duten komunikabideak indarkeria sexista horren aurkako borrokan sartzea sustatzea.
- **10. PUNTUA:** Mankomunitatean indarkeria sexista gertatuz gero, horren gaitzespena jendaurrean adieraztea.

6. DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

AHULEZIAK

- Ez dute genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza espezifikorik.
- Udalerriak txikiak dira, eta denek elkar ezagutzen dute; beraz, horrek zaildu egiten du laguntza eskatzea.
- Batzuetan azaldu dute Gizarte Zerbitzuak urrunekoak bezala ikusten dituztela, eta haietara hurbiltzeko tabuari eusten zaio.
- Ez dute abegi-etxerik, ez eta arreta psikologikoaren eta juridikoaren zerbitzurik.
- Ez dute zeinuen hizkuntza itzultzeko eta interpretatzeko zerbitzurik.
- Biztanleek ez dakite Mankomunitateak zein funtzio zehatz betetzen dituen.
- Baliabide gutxi dituzte.
- Politikariak eta mankomunatuak ez dira beti Udaletxean egoten; ondorioz, administrazioko langileek zeregin eta erantzukizun gehiegi dituzte.
- AUMko herrietan ez dago Udaltzaingorik.

MEHATXUAK

- Berdintasun arloan, ez da orekarik ikusten udalerrien artean (5 udalerritan I. Plana eginda, beste batean II. Plana eta 3tan Berdintasun Planik ez dute), eta horiek parekatzeko laguntza teknikorik ez dago.
- Berdintasunari eta bereziki genero-indarkeriari eragiten dioten murrizketa sozialekin garrantzia kentzen zaio arazoari.
- Diru-laguntzak murriztuta, baliabideak gero eta mugatuagoak dira, baina eskaerak mugagabeak.
- Egonkortasun gutxi erakundeen kudeaketan, hauteskundeak medio.
- Ez da bermatzen hasitako lanak etorkizunean jarraipena izango duenik.
- Herritarren kontzientziazio-eza.
- Mankomunitatearen identitatearen pertzepzio gutxi.

INDARRAK

- Gizarte-agente guztiak inplikatzeko.
- Konpromiso politikoa.
- Genero-indarkeriarako aurrekontuko partida ez duten udalerriek baliabide ekonomikoak dituzte larrialdi-kasu bakoitzerako.
- Konfiantza pertsonala politikari eta aguzilekiko; horrek hurbiltzea errazten du.
- Genero-indarkeriari eta horren ondorioei buruzko kontzeptualizazio homogeneoa.
- Harreman zuzena eta etengabea dago Durangoko Ertzain Etxeko EI/GI koordinatzailearekin.

AUKERAK

- Bederatzi udalerritatik sei udalerritan Berdintasun Plana badutenez, denen arteko bat bultzatu daiteke.
- Udalerri guztiarentzako hainbat abegi-etxe hartzeko aukera.
- Emakumeen elkarte eta parte hartzeko talde ugari.
- Emakumeen elkarteek GI biktimei laguntzeko pertsonen sarea sortu nahia.

7. JARDUKETA-PROGRAMA

Jarraian agertuko dira GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO ARRETA OSOAREN PROTOKOLOAREN KOORDINAZIO-MAHAIA osatzen duten kideak:

- ✓ Politikariak: udalerrri guztietako ordezkariak eta Mankomunitateko lehendakariak.
- ✓ Hezkuntza-arloa: ikastetxe guztietako langile orientatzaileak.
- ✓ Mankomunitateko gizarte zerbitzuak, GHET eta Gazteriako arduradunak.
- ✓ Osasun-arloa: Arratiako Unitateko burua.
- ✓ Segurtasun-arloa: Ertzaintza.
- ✓ Herritarren parte-hartzea: Mankomunitateko emakumeen elkarteak.

Mahai hori alda daiteke Egituraren eraginkortasunaren arabera. Era berean, funtsezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiarekin nahiz Genero Indarkeriaren Biktimak Artatzeko Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzarekin komunikatzeko bide irekia izatea.

HELBURU OROKORRAK:

- Protokoloaren agiria hedatzea Instantzia bakoitzetik Prebentzio eta Arreta lanetan parte hartzen duten langileen artean eta hori abian jartzea bultzatzea. Urtean 2-3 aldiz biltzea.
- Datuak denen arteko irizpideen arabera erregistratzeko eta/edo sistematizatzeko modurik onena adostea, sortutako informazioa zerbitzu ezberdinetan parekatze ahal izate aldera.
- Durangoko Ertzaintzarekin komunikazio zabal eta arin bat edukitzea.
- Jasotako kasuen informazioa eta segimendua egiaztatze gune teknikoak izatea.
- GIren aurka herritarren kontzientzia pizteko eta sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzea, eta, horretarako, dagoeneko sortutako edo sortuko diren egiturekin egindako itunak erabiltzea; esate baterako, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Forua,...
- GI biktimei laguntzeko emakumeen sarea sortzea.
- GI Protokoloa 2-3 urtetik behin ebaluatzea.

- I. GENERO-INDARKERIAREN PREBENTZIOA KOORDINATZEKO PROZEDURA.
- II. GENERO-INDARKERIAREN KASUAK ANTZEMATEA ETA ARTATZEA KOORDINATZEKO PROZEDURA.
- III. ARRATIAKO MANKOMUNITATEAN INDARKERIA SEXISTA MEDIO HERIOTZA GERTATUTAKO KASUAN JOKATZEKO PROZEDURA.

I. GENERO-INDARKERIAREN PREBENTZIOA KOORDINATZEKO PROZEDURA

GIren prebentzioaren inguruan lan egitea da Protokoloaren Mahaiaren funtsezko ildoetariko bat; izan ere, indarkeria-mota hori goiz antzematea eta izan dezakeen eragina geldiaraztea bermatzen du. Organigrama honetan aurkitzen diren pertsonen helburuak izango dira, besteak beste, mikroindarkeriak kentzea.


Honako hauek bezalako proposamenak egin dira:

- *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskualde-mailako ordenantza* egitea. Arau juridiko horren bitartez, berdintasun-politikak hiru dimentsiotan garatzen lagun daiteke: komunikatiboan, instrumentalean eta sinbolikoan.
<http://www.eudel.net/web/docs/gestion/maq%20ordenanza%20cast%20ok.pdf>
- Bestelako produktuak: liburuxkak,...

Organigramaren azalpena:

Erkidegoko Gizarte Zerbitzuak, GHET, politikariak, herritarren parte-hartzea: elkarte ezberdinak, talde feministak, osasun-zentroa, Mankomunitateko ikastetxeak, Ludoteka, Gazteria Saileko arduradunak, Mankomunitatean eragina duten komunikabideak,... funtsezko eragileak dira arlo horretan prebentzio-lanak egiteko. Horiek guztiak GI PROTOKOLO MAHAIK koordinatuko ditu, eragile horien ideiak eta proposamenak jaso eta Mankomunitateko ikastetxe, emakumeen elkarte eta herritarrei oro har zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak bultzatzearekin batera.

GI-ren prebentzioaren FLUXUGRAMA:



II. GENERO-INDARKERIAREN KASUAK ETA SEXU-ERASOAK ANTZEMATEA ETA ARTATZEA KOORDINATZEKO PROZEDURA

Prozedura honen oinarritzko helburua da emakumeek "leihatilaz leihatila" beren tratu txarren eta/edo sexu-erasoen berri behin eta berriz emanez jasaten duten biktimizazio bikoitza ezabatzea.

Organigramaren azalpena:

Protokolo Mahaiak GI biktimen sarrera-bideak erraztu nahi ditu (**SARRERA-PUNTUAK**), haien bizitzatik indarkeria kentzeko esku-hartze- prozesuari hasiera ematearren. Era horretan, honako instituzio hauetara jo dezakete prozedurari hasiera emate aldera:

- **Erkidegoko Gizarte Zerbitzuak**
- **Ertzaintza eta aguazilak**
- **Osasun-zentroa**
- **Ikastetxeak**
- **Bestelako bideak: emakumeen elkarteak,...**

ERKIDEGOKO GIZARTE-ZERBITZUAK

Nola joan Igorreko Gizarte Zerbitzu Mankomunatueta Arratiako Mankomunitateko beste edozein udalerritik? Laguntzailearen irudia ezartzea Mankomunitateko emakumeen elkarteekin. Garraioa (taxia) ordaintzea. Arlo horretako prestakuntza.

-Espazio fisiko egokian harrera egitea / biktimarekin enpatia izatea.

-Esku-hartzea bi erakoa izan daiteke: larrialdikoa eta ez larrialdikoa.

a) Larrialdi-egoera: salaketa jartzeko laguntzea, osasun-arretara jotzeko laguntzea. Udalak ibilgailu bat edo taxis jar dezala laguntzailearekin batera joateko (taxia gizarte-langileei ordainduko zaie).

Salaketa jarri nahi ez badu, Ertzaintza jakinaren gainean jartzea.

UGZk biktima dagokion zerbitzura bidaltzea bermatuko du (Osasun-zentroa edo polizia-zerbitzura).

b) Larrialdia ez den egoera: kasuaren segimendua, zerbitzuen desbideratzea, baliabideak: aholkularitza juridikoa eta psikologikoa. **Ikus organigrama**. Segimendu hori bertan behera gera daiteke biktimak horrela adierazten badu hitzez edo idatziz. Eta arrazoien artean hauek izan daitezke: indarkeria-zikloa haustea, laguntzako ordezeko sarea izatea, bizitokiz aldatzea,...

- UGZ eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa: harremanetan jartzea genero-indarkeriaren (Ertzaintzak erabilitako kontzeptua) kasuen segimendua egiten duen agenteren batek emakumea ahalik eta azkarren artatzea ziurtatzeko.
- UGZ eta abegi-baliabideen arduradunen arteko koordinazioa: baliabide horien arduradunekin harremanetan jartzea. BFAko abegi-etxera joaten Ertzaintzak laguntzen du.
- UGZ eta Osasun-zentroaren arteko koordinazioa: hala eskatuz gero, Osasun-zentrorara laguntzea. UGZk artatutako emakumeek babesteko neurriak baldin badituzte, gizarte-langileak emakumeak idatziz emandako baimenarekin egoera horren berri emango dio

Osasun-zentroari (bereziki pediatriakoei, biktimak seme-alaba adingabeak izanez gero), erasotzailearekin ez topatzearren.

- UGZ eta ikastetxeen arteko koordinazioa: UGZk artatutako emakumeek babesteko neurriak baldin badituzte, gizarte-langileak emakumeak idatziz emandako baimenarekin egoera horren berri emango die ikastetxeei, biktimak seme-alaba adingabeak izanez gero, ikastetxeak dagozkion neurriak har ditzan.

Biktimizazio txikienarekin jarduteko printzipioa kontuan izango da beti; hau da, baliabideek koordinazio-lanak egin behar dituzte biktimaren arretarako, eta biktimak ez ditu baliabideak koordinatu behar. Jarduera hori zuzenean egin ahal izango da adierazitako baldintzetan horiek aldeztu aurretik emandako baimenarekin edota aztertu egin beharko da biktima berak aurrera eramatea komenigarria den.

ERTZAINZA

Ertzaintzak bere GI protokoloa eta emakume salaketa-egilearen baimena lortzeko agiri propioak ditu, datuak partekatzearren.

Mankomunitateak Durangoko Ertzaintzako erreferentziako pertsonarekin harremanetan jartzeko datuak ditu (telefonoa, faxa, e-maila).

AGUAZILAK

Aguazilek genero-indarkeriaren inguruko gertaerak jasoko dituzte eta aldizka UGZri horren berri emango die. GI biktimei batera edo bestera joateko laguntza eskainiko diete ahal duten neurrian.

OSASUN-ZENTROA

Osasun-arloko langileek biktimak artatzeko kontuan izango dituzte etxeko tratu txarren eta emakumeen sexu-indarkeriaren inguruan duten Osasun-arloko Protokoloa (2008) eta honako Protokolo hau.

- Osasun-zerbitzuek biktimaren baimen esplizituarekin emakumea artatzen badute, UGZri horren berri emango diote.
- Biktimak laguntzeko baliabideak ezagutzea funtsezkoa da osasun-langileek behar bezala joka dezaten. Beraz, informazio-materiala (liburuxkak, kartelak,...) esku artean izan beharko dute, eta, behar izanez gero, UGZri bilera bat egitea eskatuko diote informazioa eguneratzearren.

IKASTETXEAK

Ikastetxe guztiek ondorengo gidako argibideak jarraituko dituzte: "*Berdinen arteko tratu txarren aurrean ikastetxeek jokatzen duten gida 2007*". Emakumeen kasu hauek azalduko ditugu espezifikoki:

a) Tratu txarrak jasan dituen neska (ikaslea) —egungo harremanetan edo aurreko harreman batean— edo beste ikasle batek eragindako sexu-indarkeria jasan duena.

Zehazki, ikastetxeko zuzendariak edo kasuaren segimendua egiteko hark izendatutako pertsonak ondorengo urratsak emango dituzte:

1. Informazioa biltzea.
2. Kasuaren alde aurretiko azterketa eta presazko esku-hartzeak egitea.
3. Familiekin lehen aldiz harremanetan jartzea.
4. Informazioa osatzea, egiaztatzea eta aztertzea.
5. Lortutako informazioaren arabera, berdinen arteko tratu txarren kasua den ala ez zehaztea, hezkuntza-ondorioetarako.
6. Hezkuntzako Ikuskaritzari gertaeren berri ematea.
7. Jarduera Plana abian jartzea.
8. Familiei jakinaraztea Jarduera Planean proposatutako neurriak.
9. Hartutako neurrien segimendua eta ebaluazioa egitea.

b) Eskolako neskaren batek ikastetxeko langileren baten tratu txarrak edo sexu-indarkeria jasaten duenaren susmoa. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari horren berri emango zaio, eta hark berehala jakinaraziko dio Hezkuntza Ikuskaritzari. Hori guztia dagozkion diziplinazko neurriak eta neurri judizialak alde batera utzi gabe.

c) Senitartekoren baten edo ikastetxez kanpoko pertsona baten tratu txarrak edo sexu-indarkeria jasaten duen neska. Kasu horretan, horren berri emango zaie Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei, Fiskaltzari eta Hezkuntza Ikuskaritzari.


d) Hezkuntza-erkidegoko norbaitek jakiten badu edo susmoa badu ikasle baten ama etxeko tratu txarren edo sexu-indarkeriaren biktima dela, berehala ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio, eta hark, egoera aztertu ondoren delitu-aztarnak ikusten baditu, Gizarte Zerbitzuei, Fiskaltzari eta Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinaraziko die.


Aurreko a), b), c) eta d) ataletan adierazitakoari jarraiki, tratu txarrak edo sexu-indarkeria gertatzen dela zehazten denean, biktimei, edo, behar izanez gero, familiari, jakinaraziko zaie biktima moduan hezkuntza-arloan zer-nolako zerbitzuak eta prestazioak dituzten.

BESTE SARBIDE BATZUK:

Emakumeen elkarteak,... Larrialdia baloratuko da. Larria bada, Ertzaintzaren komisariara edo Osasun-zentrora joaten lagunduko zaie. Larria ez bada, GI biktimari Erkidegoko Gizarte Zerbitzuetara joatea gomendatuko zaio, eta, zerbitzu horretara joateko laguntza ere eman daiteke.

Udalerri hauetan GI antzemateko eta horren aurrean jarduteko FLUXUGRAMA: Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa Ubide eta Zeanuri:





* **Larrialdiko egoeran aurkitzen den emakumea.- BEREHALA ESKU HARTU BEHARRA:** larrialdizat hartuko da erabiltzaileak bere osotasun pertsonalaren arriskua subjektiboki hautematen duenean edota arriskuaren azterna objektiboak daudenean; esate baterako, zauri fisikoak eta/edo psikologikoak izatea eta osasun-arloko langileek esku hartu behar izatea (horiek lesioen parte egingo dute eta Epaitegira bidaliko dute); baita ere, bere bizitzaz edo osotasun pertsonalaz kezkatuta izatea jasotako ekintza eta/edo mehatxuak medio.

Bi kasu horietan, beharrezko arreta sozialaz eta osasun-arretaz gain, Ertzaintzan dagokion salaketa jartzea eskatuko zaio, dagozkion neurriak har ditzan. Eskubide hori erabili nahiko ez balu, profesionalak egoera horren berri emango dio Ertzaintzari, hark dagozkion diligenziak egin ditzan.

* **Egoera arruntean aurkitzen den emakumea.- BEREHALA ESKU HARTU BEHARRIK EZ:** erabiltzailearen osotasun pertsonala berehalako arriskuan ez dagoela ulertuko da.

III. ARRATIAKO MANKOMUNITATEAN INDARKERIA SEXISTA MEDIO HERIOTZA GERTATUTAKO KASUAN JOKATZEKO PROZEDURA

Protokoloa sinatutako udalerriren bateko bizilagunen bat genero-indarkeria dela-eta hil dela jakiten bada,

- Mankomunitateak Osoko Bilkura deituko du, gaitzesteko aitopen instituzionala onartu eta herritarrak ekitaldietara deituko ditu (kontzentrazioa, manifestazioa,...).
- Dagokion Udala biktimaren familiarekin harremanetan jarriko da beharrezko laguntza eskaintzearen: legezko aholkularitza, laguntza psikologikoa krisi-egoeretarako edota laguntza dolu-prozesurako, laguntza ekonomikoa hala behar izanez gero, gorpua aberriratzeko kudeaketak egiteko laguntza hala behar den kasuan, Estatuan edo atzerrian dauden beste senitartekoekin harremanetan jartzea,...
- Hildako emakumearen seme-alabak edota beste senitartekoak indarkeria horren zuzeneko biktimak dira, eta, horrela diren heinean, jendearen onarpena behar dute haien estigmatizazioari aurre egin eta osatu ahal izateko. Horretarako, dagokion Udalak, Mankomunitatearekin batera, biktimaren borroka pertsonala onartzeko jarduerak bultzatuko ditu, indarkeria hausteko helburuarekin.

8. TRESNAK

a) TELEFONO ERABILGARRIEN AGENDA

ERAGILEA	HARREMANA	DATU INTERESGARRIAK
ERKIDEGOKO GIZARTE-ZERBITZUAK	946 311 717	8:00etatik 15:00etara Elexalde kalea 49, Igorre
<i>Genero-indarkeriaren biktimek artatzeko zerbitzu telefonikoa. Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei laguntzeko zuzendaritza.</i> SATEVI	900 840 111	24 ordu, doakoa eta konfidentziala. 51 hizkuntzatan artatzen da eta entzumen arazoak dituztenei arreta ematen die.
OSAKIDETZA	944 100 000	Larrialdi-zerbitzua
ERTZAINZA, DURANGOKO GENERO-INDARKERIA UDALZAINGOA	112 944 669 300 092	Kurutziaga 25, Durango
GALDAKAKO OSPITALEA	944007000	Labeaga auzoa, 46
Bizkaiko BLZ (Biktimei Laguntzeko Zerbitzua) Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei laguntzeko Zuzendaritza	900 400 028 (doakoa)	Borondatezko sarbidea, Laguntza psikologikoa, juridikoa, epaiketa aurrekoa, akonpainamendua tramitatu, doako justizia bideratu baldintza betez gero eta eskubideei buruzko informazioa, lege prozedurak eta gizarte eta arreta baliabideei buruzko informazioa. Goizez, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 15:00etara Arratsaldez, asteartea eta asteazkenetan, 16:30etik 19:00etara Uztailean eta abuztuan, 8:00etatik 15:00etara
ACOVIDEM: TRATU TXARRAK JASANDAKO EMAKUMEEN ELKARTEA	665 700 805 / 636 805 532 acovidem@hotmail.com	Etxeko indarkeriaren aurkako eta Adingabeak Defendatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko 1. Elkarte.
GI BIKTIMEI LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEKO ZUTITU FUNDAZIOA	944 066 900	Bizkaiko Foru Aldundiaren mendekoa da.

EMAKUNDE (EMAKUMEEN EUSKAL INSTITUTUA)	945016700	Manuel Iradier kalea 36, Vitoria-Gasteiz
GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK ARTATZEKO ZUZENDARITZA. EUSKO JAURLARITZA	Bilbo. 4 607 5650 Gasteiz: 945 018 786	Genero indarkeriaren biktimei laguntza ekonomikoak kudeatu. BZT, BLZ. Gainera, Ertzaintzarekin eta Osakidetzarekin batera egiten du lan. Horrezaz gain, GIBLZ Eusko Jaurlaritzako Leihatila bakarra da bestelako laguntzak eta programak bideratzeko, adibidez, etxebizitza eta enplegu laguntzak.
BAKE-EPAITEGIAK		
ASTELEHENA		
Igorre	9:00 – 11:00	94 631 57 99
Bedia	11:30 – 14:00	94 631 42 72
ASTEARTEA		
Zeanuri	9:00 – 11:30	
Lemoa	9:00 – 14:00	94 631 25 52
ASTEAZKENA		
Arantzazu	9:00 – 11:00	
Artea	11:30 – 14:00	
OSTEGUNA		
Dima	9:00 – 11:30	
Areatza	12:00 – 14:00	
OSTIRALA		
Igorre	9:00 – 14:00	94 631 57 99
Lemoa	9:00 – 14:00	94 631 25 52
15 EGUNETIK BEHIN		
Ubide	9:00 – 11:00	945 46 14 37

TAXI ARRATIA: 946 315 572/ 946 739 610.

B) GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEEN ESKUBIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Genero Indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa emateko Neurrien inguruko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan Genero Indarkeriaren Emakume Biktimentzako eskubideak jasotzen dira:

- INFORMAZIOA, GIZARTE-LAGUNTZA OSOA ETA DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA IZATEKO ESKUBIDEA.
- LANEKO ESKUBIDEAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK.
- FUNTZIONARIO PUBLIKOEN ESKUBIDEAK.
- ESKUBIDE EKONOMIKOAK.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus ESKUBIDEEN GIDA, ondorengo estekaren bitartez:

<http://www.inmujer.es/ss/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-disposition&blobheadervalue1=inline&blobkey=id>

C)AKTAK:

ERTZAINZA	DATU PERTSONALAK ERABILTZEN LAGATZEKO ETA INFORMAZIOA EMATEKO AKTA
EI/GI Espedientea: _____	
_____ And./Jn.-ak,	
NANa / Pasaportea / Egoitza-baimena / Bestelako identifikazio-agiria: _____	
Akta honen bidez,	
Jakin du datu pertsonalak eta espediente honekin lotutako informazioa:	
<ul style="list-style-type: none">▪ Polizia-kidegoen esku jarri ahalko direla, beharrezkoa izanez gero, polizia-eremuan baino ez erabiltzeko eta ezar daitezkeen babes-neurriak eraginkor bihurtu ahal izateko.▪ Herrizaingo Sailaren Genero Indarkeriaren Biktimekiko Arreta Zuzendaritzari jakinarazi ahalko zaio, datu horiek beharrezkoak baldin badira aginduta dauzkan zeregin eta eskumenak betetzeko –gogobetetasunari buruzko inkestak egin ahalko dira biktimei aintzatetsi zaizkien eskubideak betetzen diren egiaztatu ahal izateko-; hori guztia, genero-indarkeriaren biktimentzako arretaren kudeaketa integralari erantzun efikaza emateko.	
Eta baimena ematen du:	
<ul style="list-style-type: none">▪ Beharrezko informazioa biktimen eskubideen aldeko defentsan lan egiten duten eta beren lana garatzeko informazio horren beharra duten gizarte-laguntzako erakundeei emateko.	
Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> (markatu egokia)	
Eguna:	Sinadura:

ERTZAINZA	DATU PERTSONALAK ERABILTZEN LAGATZEKO ETA INFORMAZIOA EMATEKO AKTA
EI/GI ESPEDIENTEA: _____	ARGIKETA / SALAKETA _____

HONEN BIDEZ, ETA GENERO INDARKERIAREN AURREAN BABES OSOA EMATEKO NEURRIEN LEGEA ERAGINKORRA IZAN DADIN EGIN BEHARREKO KOORDINAZIO-PROTOKOLOAK OINARRI HARTUTA, BEHEAN AIPATUTAKO PERTSONARI BURUZ DAGOEN INFORMAZIOA ESKATZEN DA (PERTSONA HORREN BAIMENA ERANTSI DA), ARRISKUAREN BALORAZIOA OSATZEKO ETA DAGOKION EPAITEGIRA ERAMANGO DIREN EGINBIDEEI ERANSTEKO.

_____ AND./JN.

NAN / PASAPORTEA / EGOITZA-BAIMENA / BESTELAKO IDENTIFIKAZIO-AGIRIA: _____,

BIZILEKUA: _____,

HONAKO HAUEI BURUZKO DATUAK ESKATZEN DIRA:

A) TRATU TXARREI BURUZKO DATUAK: GERTAERAK, MAIZTASUNA, LARRITASUNA...

B) ERASOTZAILEARI BURUZKO DATUAK, EMAKUMEAK BERAK ESANDAKOTIK ONDORIOZTA DAITEZKEENAK: NORTASUNAREN EZAUGARRI AIPAGARRIAK, LAN-EGOERA, ADIKZIOAK, BURU-OSASUN ARAZOAK...

C) EMAKUMEARI BURUZKO DATUAK: LAN-EGOERA, MOTIBAZIOA, BELDUR-SENTIMENDUAK, MENDEKOTASUN AFEKTIBOA, NORBERAREN BALIABIDEAK ETA AURRE EGITEKO JOKABIDEA, HAUTEMAN DAITEKEEN EGOERA EMOZIONALA, OSASUN-ARAZOAK, FAMILIA- ETA GIZARTE-LAGUNTZA...

D) FAMILIA-TALDEARI BURUZKO DATUAK: BANANDUTA BADAUDE, SEME-ALABA ADINGABEAK BADITUZTE, HORIEK ERE TRATU TXARREN BIKTIMA BADIRA, BISITA-ZERBITZUA ESKATU BEHAR BADA...

E) ETXEBIZITZARI ETA ONDAREARI BURUZKO DATUAK: JABETZA PARTEKATUA, ALOKAIKURUA, NORK JARRAITU BEHAR DUEN ETXEBIZITZAN, NORI ADJUDIKATUTA DAGOEN (BANANTZEA BADAGO), BANANDUTA BIZI DIREN...

ETA EGOKITZAT JOTZEN DEN BESTE EDOZEIN DATU.

DATA:

SINADURA:

OHARRAK

D)GI-REN DEFINIZIO NAGUSIAK

✓ **Genero-ikuspegiaren araberako analisisa**

Errealitatea aztertzea honako hauek kontuan izanda: sexua aldagaia eta sexua-generoa sistema dela-eta emakumeek eta gizonek dituzten baldintza, egoera eta premia ezberdinak.

✓ **Salaketa egiteko eskubidea**

Emakumeek eskubidea dute jasandako genero-indarkeriaren egoerak salatzeke. Salaketa aurkez daiteke Poliziaren Komisarrian (Nazionala, Autonomikoa edo Tokikoa), Guardia Zibilaren Kuartelean, Instrukzioko Epaitegian edo Fiskalaren aurrean.

Salaketaren bidez, prozedura judizialari hasiera emango zaio Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegian (gertaerak ikertzeko eta, behar izanez gero, errudunak penalki zigortzeko).

✓ **Sexu bidezko diskriminazioa**

Sexua dela-eta, pertsonen aurkako emaitza kaltegarriren bat eragiten duen eta justifikazio objektiborik eta zentzuzkorik ez duen edozein bereizketa, bazterketa edo lehentasuna.

Zuzena

Tratamendu ezberdina eta kaltegarria; tratamendu horretan sexua izango da zuzeneko arrazoia, eta ez du justifikazio objektiborik eta zentzuzkorik izango.

Zeharkakoa

Pertsonen sexuarekin lotzen ez den jarrera, irizpide edo praktika, itxuraz neutroa dena. Sexu bateko pertsonak eta bestekoak modu desproporzionatuan kaltetzen ditu, eta ez dago objektiboki justifikatuta inolako arrazoi eta bestelako premiazko baldintzak medio.

Anitza

Diskriminazioa eragin dezaketen faktore bat baino gehiago elkartzean gertatzen da emakumeengan; esate baterako, etnia, erlijioa, desgaitasun fisikoa eta/edo psikikoa,...

✓ **Jabekuntza**

Beijing-en, 1995. urtean egindako Emakumeen Munduko IV. Konferentziako kontzeptu nagusienetariko bat izan zen. Estrategia gisa, emaitzen berdintasuna sustatzeko birtualtasuna lortu nahi da. Bi dimentsio ditu:

Banakoa

Emakumeak ohartzea banaka eta taldean duten botereaz, pertsona gisa duintasuna berreskura dezaten.

Soziala

Emakumeak erabakiak hartzen diren lekuetan izatea; hau da, boterea erabiltzea.

✓ **Genero-ekitate**

Gizonak eta emakumeak zuzentasunez tratatzea adierazten du, dituzten beharren arabera. Kontzeptu horretatik abiatuta, tratamendu berdinak edo desberdinak sar daitezke, betiere eskubide, onura, betebeharrak eta aukerei dagokienez baliokideak badira.

✓ **Genero-estereotipoa**

Emakumeen eta gizonen ustezko ezaugarri "naturalen" gainean aurrez sortutako ideietan oinarritzen diren sinesmenen multzoa. Ezaugarri horiek klise moduan ezartzen zaizkie pertsoneri, sexu batekoak edo bestekoak diren kontuan hartuta.

✓ **Feminismoa**

Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna (eta emaitzena) defendatzen duen mugimendu sozial eta politikoa. Europan, sustraiak XVIII. mendean aurkitzen dira, Frantses Iraultzaren garaian; hain zuzen ere, 1.791. urtean, Olimpia de Gouges-ek "Emakumearen eta herritarren eskubideak", argitaratuko du, hots, "Gizonaren Eskubideen Aitorpenari" (1.789) egindako erantzun feminista. Hori defendatzeagatik gillotinara eraman zuten. Gainera, pentsamendu zientifikoa da, errealitate osoaren interpretazio-paradigma eskaintzen baitu: – Emakumeena eta gizonena".

✓ **Feminizidioa**

Ikertzaile batzuek generoaren azterketan garatutako kategoria teorikoa da. Ikertzaileen artean ezagunenak, hots, gaia zabaldu zutenak, batez ere laurogeita hamargarren hamarkadan, Hill Radford eta Diana Rusell izan ziren. Emakumeen aurkako genozidioa da, eta baldintza historikoek emakumeen osotasunaren, osasunaren, askatasunaren eta bizitzaren aurka erasotzeko aukera ematen duten praktika sozialak sortzen dituztenean gertatzen da.

Feminizidioa gertatzen da Estatuak emakumeei bermerik ez badie ematen eta haien bizitzarako segurtasun-baldintzak sortzen ez baditu komunitatean, etxean, laneko espazioetan nahiz iragaiteko edo aisiarako espazioetan. Feminizidioa matxismoaren eta misoginiaren giro ideologiko eta sozialaren bidez sortzen da, emakumeen aurkako indarkeria normalizatuaren inguruko pentsamendua dagoenean, eta gobernuak legez eta politikaz ez babesteagatik. Hori dela-eta, emakumeen bizikidetzarako baldintza arriskutsuak sortzen dira. Mundu mailan ezagutzen diren feminizidio-kasuen artean Ciudad Juarez-koak (Mexiko) aipatu behar dira.

✓ **Generoa**

Femeninoa – Maskulinoa

Balio, sentimendu, jarrera, portaera, gaitasun, rol,... multzoa da. Pertsona bati kulturalki esleitzen zaizkio, sexu batekoa edo bestekoa jaiotzeagatik edo gizarte bakoitzean eta une historiko bakoitzean emakumeak edo gizonak nolakoa izan behar duen edo zerk egin behar duen uste izateagatik. Azken finean, pertsonen garapen osoa mugatzen duen eraikuntza kulturala da.

✓ **Genero-berdintasuna**

Egoera honetan, gizaki guztiak askeak dira beren gaitasun pertsonalak garatzeko, haien erabakien jabe izatearekin batera, rol tradizionalak ezarritako inolako muga-motarik gabe. Egoera honetan, emakumeen eta gizonen jarrera, nahi eta premia ezberdinak kontuan hartu eta indartzearekin batera, haiei balioa ematen zaie, betiere berdintasunean oinarrituta.

Kontzeptu horretan, "jure" eta "faktu" berdintasunak sartzen dira, "aukera" eta "emaitzen" berdintasunez gain. Azken horretan, bi estrategia giltzarri hartu behar dira: ekintza positiboak eta generoaren mainstreaming-a.

✓ **Mainstreaming-a**

Emakumeak garapenaren "korrante nagusian" sartzeko helburua duen ikuspegi politikoa (metodologia, analisi, politika guztietan eragina izateko premia onartzea eta genero-ikuspegitik planifikatzea). Helburua da emakumeen maila soziala eta ekonomikoa hobetzea.

✓ **Mikromatxismoak**

Luis Boninok era horretan deitzen die gizonek eguneroko bizitzan egindako indarkeria eta jabekuntza praktika ugari. Praktika horiek, oso nabarmenak ez diren arren, emakumeen autonomia, duintasuna eta oreka psikikoa bortxatu eta hondatzen dute modu maltzurrean eta behin eta berriz.

✓ **Babes-agindua**

Babesaren Agindua genero-indarkeriaren biktima eraso-mota guztien aurrean babesteko diseinatutako legezko tresna da. Babesaren Agindua, biktimak ez ezik, hurbileko senitartekoei, abokatuak edo haren egoera ezagutzen duten gizarte-zerbitzuek ere eska dezakete Durangoko Ertzain Etxean, Epaitegian, Fiskaltzan, Biktimak Artatzeko Bulegoetan, Gizarte Zerbitzuetan eta Abokatu Elkargoen Orientazio Juridikoen Zerbitzuan aurkez daiteke.

Agertu behar diren egoera batzuez gain, emakumeak berriro ere erasoak edo kalteak jasateko beldurra izatearen gaineko arrazoiak adierazi behar dira. Babesaren Agindua ebazpen judizial bakarrean eta berehalakoan biltzen ditu hartu beharreko neurri zibilak eta penalak, eta, aldi berean, aktibatu egiten ditu Estatuak, Autonomia Erkidegoek eta Tokiko Korporazioek biktimaren alde ezarritako babes sozialerako mekanismoak.

✓ **Biktimentzako babes osoa**

Babes fisikoa: etorkizunean erasotzailea biktimarengana hurbildu eta beste eraso batzuk egitea saihestea.

Babes juridikoa: Segurtasun juridikoa era honetan: familiaren etxebizitza hasieratik ematea, seme-alaben zaintza ematea, elikagaiak emateko behin-behineko erregimena ezartzea.

Babes poliziala: Babeserako neurri polizialak, Ertzaintzaren aldetik, emakumearen arrisku egoeraren araberakoak. Neurri horiek puntualak edo etengabeak izan daitezke.

Babes soziala: Estatuak, Autonomia Erkidegoek,... emandako gizarte-prestazioak.

Instrukzioko epaileak emango du Babes Agindua, eta bertan neurri penalak eta zibilak egon daitezke; halaber, babes sozialeko neurriak aktibatuko ditu.

Neurri penalak: behin-behineko espetxeratzea, hurbiltzea debekatzea, bizilekua debekatzea, komunikazioa debekatzea eta bestelako neurri batzuk.

Neurri zibilak: Bisitetarako erregimena etetea, zaintza kentzea, bizilekuaren erabilera eta gozamina ematea, mantenu-prestazioa ezartzea, egoteko erregimena.

Neurri sozialak: Babes Aginduaren berri emango zaie Administrazioei, biktimen alde babes sozialeko mekanismoak aktibatzearen.

GARRANTZITSUA: komeni da Babes Agindua salaketa jartzen den une berean eskatzea, geroago eska badaiteke ere.

Salaketarik aurkezten ez denean, Babes Aginduaren eskaerak berak ardua hori du, eskubide eta bertan kontatutako indarkeria-egoerei dagokienean. Auzitegiak Babesaren Agindua eman beharko du aurkeztu eta gehienez 72 orduko epean, biktima eta erasotzailea agertu ondoren. Legearen arabera, biak batera ez dira agertuko, bien arteko borroka saihestearren.

✓ **Sexismoa**

Mekanismo honen bidez, pertsonen sexuaren arabera pribilegioak ematen zaizkie edo bereizi egiten dira, eta ez zaie uzten daukaten giza gaitasun guztia garatzen.

*** Hitz horietako batzuk Emakunderen "Hamar urte euskal gizartearekin" liburutik (1998) hartu dira, nahiz eta berrikuspen batzuk egin.**

E)KONTSULTA-MATERIALAK

GIDAK ETA ARTIKULUAK

- Zubizarreta Anguera, Irene "Consecuencias psicológicas del maltrato doméstico en las mujeres y en sus hijos e hijas. ZUTITU psikologia klinikoa.
- Espinosa Bayal, M^a Angeles "La construcción del género desde el ámbito educativo: una estrategia preventiva".
- Díaz-Aguado, M^a José "Guía informativa sobre el sexismo y la violencia de género".
- Izquierdo, M^a Jesús. "Los órdenes de la violencia: especie, sexo y género"
- Simón-Rodríguez María Elena "Violencia de género, ¿un conflicto de todos y todas?"
- Vargas, Isabel "La violencia de género en la legislación europea". Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritz) antolatutako jardunaldiak. 2010eko irailak 29 eta 30.
- Etxeko tratu txarren eta emakumeen aurkako indarkeria sexualaren aurrean Gizarte Zerbitzuetako profesionalak jarduteko gida. Emakunde.

WEB ORRIAK

- www.emakunde.euskadi.net (Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuaren web orria)
- www.interior.ejgv.euskadi.net/ (GI Biktimak Laguntzeko Zuzendaritzaren web orria, Eusko Jaurlaritz)
- www.interior.ejgv.euskadi.net/r42.../es/.../II_interinstitucional_c.pdf (" Akordio Instituzionalaren web orria)
- www.berdinsarea.net (Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko euskal udalerrien web orria)
- http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria
- www.euskadi.net/notecalles



9. ERANSKINA

1. GIZARTE-ZERBITZUETAN TRATU TXARRAK ERRAZAGO ANTZEMATEKO ADIERAZLEAK

(Gizarte Zerbitzuetako profesionalen jarduteko Emakundek egindako Gida).

SINTOMA FISIKOAK: hausturak, hematoma, ebakiak, bihurrituak, barruko lesioak, erredurak, zauriak bularretan, infartuak emakume gazteengan, nahi ez diren haurdunaldiak, sexu-disfuntzioa, arnasa hartzeko zailtasunak, HIESA,...

SINTOMA PSIKOLOGIKOAK: beldurra, depresioa, kexa somatikoak, antsietatea, loaren nahasmenduak, botikak gehiegi hartzea, suminkortasuna eta amorrua, anorexia, bulimia, automutilazioa, fobiak,...

EMAKUMEAREN PORTAERAREN ADIERAZLEAK:

- ❖ Ez dira hitz egiten hasten edo hastea izugarri kostatzen zaie.
- ❖ Isilik egoten dira bikotekidea aurrean badago.
- ❖ Azalpenak ematerakoan, bikotekideak onarpena ematea eskatzen dute etengabe.
- ❖ Oso oldarkor agertzen da galdera egiten dionarekin edo, bestela, blokeatuta geratzen da.
- ❖ Defentsiban jartzen da, jarrera oso zaintzailearekin.
- ❖ "Emakumearen rol tradizionala" defendatzen du.
- ❖ Balio handiegia ematen dio "gizonezkoen rolari" eta familiarako duen garrantziari.
- ❖ Osasun-arazo errepikariak ditu.

GIZONAREN PORTAERAREN ADIERAZLEAK:

- ❖ Bikotekideari egindako galderak erantzuten ditu.
- ❖ Bikotekidea eteten du esaten ari dena zuzentzeko, zehazteko edo berak nahi duen moduan kontatzeko.
- ❖ Emakumeari mezuak bidaltzen dizkio isiltzeko, adierazpenak "zehazteko".
- ❖ Gizarte-zerbitzuetako profesionala bikotekideak zenbait gai ulertzeko duen ezintasunaren lekuko gisa jartzen du.
- ❖ Honako hauen paper eta estatus ezberdinen ikuskera oso zorrotza ontzat hartu eta gogotik defendatzen du: emakumea, gizona, aita, ama, bikotekidea, seme-alabak.
- ❖ Hezkuntza zorrotza sustatzen du, zigorrak eta "zuzenketak" barne.
- ❖ Jeloskorra, posesiboa da.
- ❖ Sentimenduak eta emozioak adieraztea zail egiten zaio.
- ❖ Behin eta berriz eskatzen du bikotekideari berak laguntzea honako hitzordu hauetara: azterketa medikoak, kontsulta psikologikoak, gizarte-baliabideetan laguntzak eskatzea,...

2. KONTSULTA MEDIKOAN TRATU TXARRAK ANTZEMATEKO ADIERAZLEAK *(EAEko Osasun-arloko Protokoloa)*

Tratu txarren sintomak:

PSIKIKOAK:

- ❖ Depresioa.
- ❖ Nahasmendua.
- ❖ Antsietatea.
- ❖ Portaera bereizia.
- ❖ Anorexia/bulimia.
- ❖ Somatizazioak.
- ❖ Trauma ondorengo estresaren sindromea.
- ❖ Suizidio-saioak.

FISIKOAK:

- ❖ Gaizki definitutako patologiak (buruko mina, bularra aldeko mina, bizkarreko mina, sabeleko mina, min pelbikoa, insomnioa, palpitzioak, itomena).
- ❖ Lesio akutuak puntu askotan (traumatismoak buruan, lepoan, gorputz-adarretan, bular aldean, sabelean,...). Ubeldurak, urradurak, hematoma, ebakiak edo hausturak).
- ❖ Etengabeko desgaitasunak.

BIKTIMAREN JARRERA:

- ❖ Ikara, begirada iheskorra, lotsa, erruduna izatearen sentimenduak, azalpen zehaztugabeak, kontraesankorrak, nahaspilatsuak.

BIKOTEKIDEAREN JARRERA:

- ❖ Gehiegi kezkatuta eta arduratsu agertzea.
- ❖ Arduragabe hutsa, mespretxuzkoa eta/edo ironikoa (ohikoa da erasotzailea biktimarekin batera kontsultara joatea, kontrolatzearen. Kontsultatik ateratzeko gonbita egin behar zaio).

3. OHIKO GALDERAK

1. Nire bikoteak tratu txarrak ematen dizkie nire seme-alabei. Zer egin dezaket?

Zure seme-alaba adingabeek zure bikotearen indarkeria jasaten badute, horren berri eman behar diezu Ertzaintza, Gizarte Zerbitzuak, Epaitegia eta abar. Modu horretan, adingabeen zaintza eta babesa emateko, familiaren etxebizitzarako eta mantenu-pentsioa ordaintzeko presazko neurriak izapidetuko dira. Era berean, seme-alabak pediatrarengana eraman behar dituzu eta zer gertatzen den azaldu, indarkeria-seinalerik baduten ikus dezan.

2. Nire seme-alaben aitak ez du mantenu-pentsioa ordaintzen. Adingabeak ikusten edo harekin eramaten utzi behar al diot?

Nire seme-alaben aitak ez du mantenu-pentsioa ordaintzen. Adingabeak ikusten edo harekin eramaten utzi behar diot?

Nahiz eta aitak mantenu-pentsioa ez ordaindu, seme-alabak ikusteko eskubidea du. Betetze ezberdineko eskubideak eta obligazioak dira.

3. Zer egin dezaket nire bikote ohiak ez badit haurren pensioa ematen?

Kasu horretan, banantze-epaia eta ezarritako neurriak gauzatzea eskatu behar duzu. Epaitegiak adingabeen aitari jakinaraziko dio ordaintzea egokitzen zaion zenbatekoa. Epaileak onar ditzake nomina edo bestelako ondasunak bahitzeko neurriak. Zigor Kodean familia alde batera uztearen delitu gisa agertzen da pensioak ez ordaintzea. Zure seme-alaben aitaren aurkako salaketa jar dezakezu bi hilabetez jarraian edo txandakako lau hilabetetan ordaintzen ez badu. Salaketa Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoan jar daiteke, abokaturik bertara joan beharrik gabe.

4. Atearen sarraila alda dezaket genero-indarkeria dela-eta salatu dudan nire bikotea etxean sar ez dadin?

Legearen aldetik, ezin da atearen sarraila aldatu harik eta epaileak familiaren etxebizitza biktimari esleitzeko neurriak eman arte. Arriskuan zaudela uste baduzu, hurbiltzea galarazteko kautelazko neurriak eska itzazu ahalik eta azkarren.

5. Zer egin dezaket nire bikote ohiak ni ez erasotzeko?

Genero-indarkeria medio salaketa egin baduzu eta Babes Agindua eskatu baduzu, epaileek eskaera hori onartu behar dute. Genero-indarkeria dela-eta eskatutako babesaren barruan, Urruntzeko eta Ez komunikatzeko kautelazko neurria aurkitzen da; beraz, erasotzaileak ezin du biktimarengana hurbildu edota harekin komunikatu.

6. Etxetik alde egin dut nire bikotearen beldur naizelako, baina nire seme-alabak harekin utzi ditut. Zer egin dezaket?

Gertaera horren berri eman behar duzu banantze zibilerako izapideak berehala hasteko eta alde zurretiko neurriak larrialdi izaerarekin ezartze aldera. Bestalde, genero-indarkeriaren salaketa jarri nahi baduzu, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua eskatu behar duzu, legeak ezarritako neurri zibil, penal eta sozialekin.

7. Nire bikoteak esaten dit banantzen banaiz ez didala nire seme-alabak ikusten utziko? Hori egin dezake?

Nire bikoteak esaten dit banantzen banaiz ez didala nire seme-alabak ikusten utziko? Hori egin dezake?

Esaldi hori oso ohikoa da genero-indarkeriaren arazoak dituen bikote batean. Emakume eta ama bezala dituzun eskubideak ez dituzu ahaztu behar. Gizon erasotzaileen kasuan, epaileak orokorrean egokiagotzat jotzen du adingabeak amarekin bizitzea.

Banantzea edo izatezko harremana haustea erabakitzen baduzu, eskaera zibila aurkeztu behar duzu epaileak ondorengo puntuak zehatz ditzan:

Familiaren etxebizitzaren erabilera.

Adingabeen zaintza eta babespea eta bisiten erregimena.

Seme-alaben mantenu-pentsioa eta gutxien babestutako ezkontidearen osabidezko pensioa.

Bien ondasunen banaketa.

8. Nire bikoteak fisikoki jo nau, baina ez dut markarik. Hori genero-indarkeria da?

Edozein eraso fisiko indarkeria da. Horrelakoetan komeni da biktima ahalik eta azkarren mediku-zentro batera joatea, lesioak zenbaterainokoak diren ikuste aldera. Eraso fisiko baten atzean denboran finkatutako tratu txarren prozesua egoten da.

9. Nire bikoteak diru asko irabazten du. Ofiziozko abokatua eska dezaket genero-indarkeriaren bidezko banantze-eskaeran?

Ofiziozko abokatua eskatzen denean, eskatzailearen diru-sarrerak bakarrik izaten dira kontuan. Ofiziozko letratu esleitzea eskatzeko, Dagokion Orientazio Juridikoaren Zerbitzura joan behar duzu. Genero-indarkeria dela-eta, salaketa egitea erabaki baduzu, kontuan izan Ertzaintzak ofiziozko abokatua eskainiko dizula eta, hark lehen laguntza doan emateaz gain, legearen inguruko aholkularitza emango dizula.

10. Zer gerta daiteke bizilekua aldatzen badut genero-indarkeriaren bidezko banantze-prozesuan?

Etxetik alde egin dezakezu horrela erabakitzen baduzu; hala ere, helbide berria jakinarazi behar diozu genero-indarkeriaren bidezko zigor-prozesuaren instrukzioa daraman Epaitegiari. Zure bizitokia ezkutatzegatik aldatzen bazara, dagokion Instrukzioko Epaitegiari horren berri eman behar diozu.

11. Etxetik alde egin nahi dut tratu txarrak jasaten ditudalako. Nire bikoteak salaketa jar dezake etxea uzteagatik?

Etxea uztearen gaineko deliturik ez dago. Familia bertan behera uztearen delitua bakarrik dago. Horrek esan nahi du biktimak etxetik alde egin dezakeela betiere haren kargura dauden seme-alabak edo senitartekoak babes gabe uzten ez baditu. Dena den, gehienez 30 eguneko epean, banantzeko eskaera aurkeztu behar du Lehen Auzialdiko Epaitegian.

12. Zer nolako aztarnek erakusten dute emakume bat tratu txarrak jasaten ari dela?

Tratu txarrak jasaten dituen emakumeak azalpen zaileko lesioak (hematomak, zauriak eta hausturak ere) izan ohi ditu nahiko sarritan. Beti oso urduri egoten da, eta, depresioa, antsietatea, suminkortasuna edo bere buruaz beste egiteko pentsamenduak bezalako gaixotasun psikosomatikoak gara ditzake. Bikotearen erreakzioak zaintzen egoten da. Tratu txarrak ematen dituen aurrean baldin badago, oso erreserbatua agertzen da; hots, ez du hitz egiten eta hitz egiten duenean haren onarpena bilatzen du, haren erreakzioei aurre hartu nahian.

Hirugarren pertsonen arazoaz zuzenean hitz egiten diotenean, blokeatu egiten da edo oldarkor jartzen da erasotzailea gogor defendatuaz. Haren alde jartzen da inolako baldintzarik gabe, eta etengabeko aitzakiak bilatzen ditu haren portaera justifikatzeko. Familiarekin edo kanpoko jendearekin eta lagunekin ez da ia batere erlazionatzen. Batzuetan, gainera, biktimak ez du baliabide ekonomikorik izaten.

13. Zer nolako portaerek salatzen dute tratu txarren egilea?

Tratu txarren egileak biktima iraindu, mehatxatu eta makurrarazten du. Askotan ezeztatu egiten du jendearen aurrean eta haren korrespondentzia eta telefono-deiak kontrolatzen ditu. Tratu txarren egilearen iritziek bakarrik balio dute, eta egiten duen guztia justifikatzera behartzen du; alegia, nora doan, norekin, gastu guztien kontuak. Familiarengandik eta lagunengandik urrundu ere egiten du.

14. Nola lagun diezaioket tratu txarren biktima denari?

Entzun biktimak esaten duena, eta ez zalantzan jarri inola ere. Saia zaitetz ulertzen gertatzen zaion arazoak duen garrantzia. Eskaini zure laguntza, eta saiatu gertukoengandik urrun ez dadin; hots, familia eta lagunengandik. Ez babestu inola ere erasotzailea eta ez justifikatu indarkeria. Biktimari ulertarazi behar diozu hura ez dela aldatuko damua eta samurtasuna erakutsi arren. Laguntzeko dauden baliabide publikoen berri eman behar diozu, behar dituen datu guztiak eta profesional egokiekin harremanetan jartzeko modua. Deitu Ertzaintzari haren segurtasunaren edo bizitzaren beldur baldin bazara. Zure informazioa konfidentzialtasun osoarekin erabiliko da beti.

10.PROTOKOLOAREN SINADURA

Genero indarkeriaren aurkako jarduera osoaren toki protokoloa behean sinatzen duten pertsonak, haien erakundeen izenean, Protokolo hori abian jartzeko eta ezartzeko konpromisoa hartzea erabaki dute.

Igorren, 2012ko irailaren 18an

**Josune Gorospe Elezkano
AUMko presidentea**

**Jon Ziarsolo Zuazua
Durangoko Ertzain Etxeko burua**

**Enrique Maiz Olazabalaga
Barne Eskualdeko
zuzendari-kudeatzailea.
-Osakidetza-**